

Barañainen BERRIA eta ' Gara ' ez erostea gaitzetsi dute 150 bat liburuzainek

Liburutegian egunkari horiek ez egoteko erabakia baliogabetzeko eskatuko dute gaur liburuzainek

Erredakzioa. Iruñea

Hogeita hori egun daramatza BERRIA eta Gara egunkariak erosi gabe Barañaingo liburutegi publikoak (Nafarroa), Pablo Gomez bertako Kultur zinegotziak (UPN) hala aginduta. Zentsura kasua dela salatu, eta Fermin Guillorme Nafarroako Liburutegi Zerbitzuko zuzendariari agindu hori baliogabetzeko eskatu diote Barañaingo liburuzainek eta Asnabik, Nafarroako Liburuzainen Elkarteak .

150 bat liburuzainek sinatutako idazki bat prestatu dute, eta gaur aurkeztuko dute Kultura Saileko erregistroan. Liburutegien Zerbitzuko zuzendariaren jokabideak sortutako sumindura azaldu nahi dute haren bidez, eta eskaera bat ere egin diote: jakinarazi diezaiela liburutegi publikoa duten udal guztietako zinegotzietan horien zuzendaritza teknikoa eta zerbitzu eta baliabideen kudeaketa liburutegi ko langileen eskuduntza dela, eta ez zinegotziena.

Liburuzainek diotenez, hori da indarrean dauden hitzarmenek zein liburutegi publikoei buruzko nazioarteko adierazpenek diotena. Azaldu dutenez, gai horri buruz idatziriko legediaren oinarria da, gainera, printzipio hori. Zinegotziaren esku-hartzea gaitzetsi zuten urtarril bukaeran, erabakiaren berri izan eta berehala. Orduan ziotenez, erabakia ez dator bat Unescoren Liburutegi Publikoen aldeko Manifestuaren oinarritzko printzipioekin. Ez liburutegi ko funtsak, ez eta zerbitzuak ere, ezin dira inolako zentsura ideologiko, politiko edo erlijiosori loturik egon, ez eta presio komertzialei ere.

Manifestua prestatzen

Manifestu bat kaleratuko dutela adierazi dute liburuzainek. Guztiontzako liburutegi publiko baten alde, guztiok guztiok garenean, izango da izenburua, eta kultur munduko hainbat ordezkari eskatuko diote atxikipena. Barañaingo liburuzainen eta Asnabiko zuzendariaren agerraldia eskatu du NaBaik, bestalde, gai honi buruzko lan saio batean. Atzo zen agerraldia onartzekoa, baina atzeratu egin da oraingoz.